

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Zetazeoak, arrantzaleen lehiakideak

GURE ARRANDEGIETAN ohiko bihurtu da kanpotik ekarritako arraina ikustea. Kantauri itsasoko legatzarekin batera Afrikakoa edo Antartikakoa dira gehientso ikusten direnak.

Reunion irla da legatz bila joaten diren arrantzaleen abiapuntu garrantzitsuenetakoa. Kanpoko arrantzaleek 30 urte daramatzate bertan legatza harrapatzen tretzaren bidez. Tretza sare luzea da, hainbat amu dituena –batetik bestera 1,20 metroko distantzia dagoela–, eta itsasontziaren atzeko aldean eta 500 metroko sakoneran kokatzen da.

Baina itsasontzietan dauden arrantzaleei itsasoko beste batzuk batu zaizkie: kaxaloteak eta orkak. Horiek tretzan harrapatuta dauden legatzak jaten dituzte, burua amuan utziz. Azken bost urteetan legatz-arrantzaren produkzioa erdira jaitsi omen da arrazoi horrengatik, eta horrek bultzatuta zientzialariek abian jarri dituzte arrantza-teknika berriak garatzeko ikerketak.

Aurten, ikerlariak eta arrantzaleak batera abiatuko dira itsasontzietan, eta hamaika sare berezi probatuko dituzte. Ea datorren urtearen hasieran kontatzen diguten emaitza.

Eta oinutsik lasterka egingo bagenu?

DANIEL LIEBERMAN ikerlariaren eta bere lantaldearen arabera, gizakiak, oinetakoak jarri zituenetik, korrika egiteko era aldatu zuen; edo hobe esanda, hanka lurrean jartzeko era aldatu zuen. Zapatekin korrika eginez hankaren orpoa da lurra lehenik ukitzen duena eta aldiz, oinutsik lasterka eginez gero behatza da lurrean lehenik jartzen dena. Ikerlariaren arabera, zapatak dituzten korrikalarien kasuan orpoak lurraren aurka egiten duen talka askoz ere indartsuagoa da, zapatarik gabeko korrikalariak hankaren aurreko aldearekin egiten dutenena baino.

Orpoko talkaren eragina txikiagotzeko zapatetan motelgailuak jartzen dira, baina halaz ere gure txorkatilik eta belaunek askoz tentsio handiagoa jasaten dute ortozik doazen Kenyako korrikalarienek baino; gizarte aurreratuetan jasaten ditugun muskuluetako hainbat arazo aipatutakoaren ondorioa izan daitezke.

Badirudi kirol marka ugari interesatu dela ikerketa honetan...



WWW.B1ENESTAR.COM

Sakelako telefonoak Alzheimer gaitzari aurre egiteko

Saguekin egindako zenbait probaren arabera, telefono eramangarriek igorritako uhin elektromagnetikoez, Alzheimer gaitzaren aurrean babesa eskaini ez ezik, gaitxotasunari atzera egitea eragin diezaiokete.

<http://ttiki.com/9886> (Gaztelaniaz)

Taula periodikoko elementuak imitatzen

Pennsylvaniako Unibertsitateko (AEB) ikerlari talde batek oinarritzko atomo batzuen arteko konbinazioetik oinarritzko beste elementu batzuk atera daitezkeela frogatu du. Horrek ekar dezake elementu garestiak dituzten aplikazio ugariaren merkatzea.

<http://ttiki.com/9887> (Gaztelaniaz)

Itxuraz alda daitezkeen antenak

Urteen poderioz gero eta antena sofistikatuagoak egiten dira. AEBetako Carolinako Unibertsitatean bihurtu, luzatu eta okertu daitezkeen antenak aurkeztu dituzte. Aurkikuntza honen erabilera-eremua oso zabala izan daiteke.

<http://ttiki.com/9888> (Gaztelaniaz)



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16